


Cony



ANTON OLARIAGA



JUNE FERNÁNDEZ
KAZETARIA

Oraindik ez du lortu bere hautagaitzaren txostena osorik irakurtzea. Euskal Herriko 30 feministek erantzun dute dokumentu horretan nor den haientzat Concepción Carranza Castro eta zergatik merezi duen 2019ko Berdintasunerako Emakunde Saria. Epaimahaia konbentzitu dute.

Conyri gehiegizkoak iruditu zaizkio botatzen dizkioten loreak: “Isiltasunaren eta prekaritatearen lideresa”, “komunitate feministak ereiten dituen inurria...”. Bere begi bizi-biziak malkoz bete dira elkarrizketa hasi bezain pronto: “Tira, nire buruaren irudi apalagoa dut... Nire lana emakume anonimo askoren ondarea da”. Erantzun diot horregatik ere saritu dutela, umila delako eta kolektibotasunaren alde egiten duelako.

Cony Bizkaiko mugimendu feministako auryepi eta ahots nabarmena da. Euskal Herriko V. Jardunaldi Feministetan bozeramailea izan zen eta bere karisma eta umore onarekin Durangon elkartu ziren hiru mila emakumeen euforia piztu zuen. Garaipean eta Munduko Emakumeak kulturarteko talde feministetako militantea da. Euskal Herriko Eskubide Sozialen Kartan ere buru belarri ibili da. Epaimahaiak ahalduntze eskolen bidez emakumeak boteretzeko, kontzientzia-

tzeko eta antolatzeko prozesuak bultzatu izanagatik saritu du, baita emakume etorkin askorentzat erreferente izateagatik ere.

El Salvadorren jaioa, Cony izan da Emakunde Saria jaso duen lehenengo emakume etorkin eta arrazializatua. Onartu dit mugarrak horrek zapore mingotsa ere utzi diola, bere aitortzaren justifikazioan kutsu *buenista* edo onbera somatzen duelako eta bere lanaren ezagutza eskasa. Eragile gehienek nabarmendu dute bere xarma, alaitasuna, epeltasuna, zubiak eraikitze gaitasuna, emakumeak laguntzeko eta sentikortzeko abilezia... “Bale, ados, pertsona ona naiz ni, baina nire izaerari atxikitzen dizkioten ezaugarri horiek nire lan metodologiaren muina dira, eta lan metodologian hori ez dut nik asmatu”. Herri hezitzailea da Cony, hori da bere ekarpen nagusia, alegia Paulo Freireren pedagogia kritikoari lotutako metodologia Euskal Herriko emakumeen ahalduntze prozesuetan aplikatzea. Baina gurean gutxi ezagutzen dute Latinoamerikan hain errotuta dagoen eta zapalduen emantzipazio prozesuen motorea izan den korrante hori.

Ezagutza falta horrek eragin izan du txostenak aipatzen duen Conyren egoera

prekarioa. Emakume etorkinen ibilbidea eta ezagutzak mespretxatzen dituen gizarite honetan, adineko pertsonak zaintzea da bere lan aukera nagusia. Bidegabekeria horren alde positiboa da etxeko langileekin ahalduntze prozesuak bultzatzen dituela, beraien frustrazioak eta amorrua inor baino hobeto ezagutzen ditutela.

“3.000 feminista zuriri esango diegu nola beraiek ere izan daitezkeen zapaltzaileak eta arrazistak (...). Historia egiten ari gara”, idatzi zuen *Raíces* taldeak sare sozialetan; eta horrek Durangon zeresan handia eman zuen dekolonialitatearen mahai-ingurua hasi aurretik. “Arrazista gu?”, pentsatu zuen entzule txuri askok saminduta. Oholtzatik jaitsi bezain pronto erasoak pairatu zituzten hizlariek.

Ikusgaitasuna abiapuntua baino ez da. Mugimendu feministak bere burua antiarrazistatzat izan nahi badu, emakume etorkinen ibilbideak eta ezagutzak aitortu behar ditu, paternalismorik gabe, Hegoaldeko praktika politikoez ikasteko prest egon behar du. “Ikusgaitasun hau aprobetxatu nahi dut herri hezkuntzaren metodologia ezagutzera emateko”, esan dit Conyk. Ea bere ikasbiderako prest gauden. ●